

SAGASTIAK ETENGABE ZAINTZEN

Euskal Herrian hainbat lurraldetan egiten da sagardoa. Lurralde bakoitzak bere ezaugarriak dituenez, bakoitzean hobekien egokitzen diren sagar landareak erabiltzen dira.

Sagardo garaia emateko, osagai guztiak prest egon behar dute. Sagardoak upelean egon behar du egiten edo gorputza hartzen. Edaria ona ateratzen da sagardoazalek urte guztian edan dezaten, bai txotx garaian eta bai botilatik ere, lan handia dago lehenago egiteko. Lan horien oinarrian, sagastia daude.

Euskal Herrian hainbat lurraldetan egiten da sagardoa. Lurralde bakoitzak bere ezaugarriak dituenez, probintzia bakoitzean hobekien egokitzen diren sagar landareak erabiltzen dira. Inaki Larrañaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako teknikariak esandakoaren arabera, Euskal Herrian hainbat sagar landare mota erabiltzen dira, bereziki Gipuzkoan, gehien ekoizten den lurraldea delako.

«Azken urteetan, Gipuzkoan ondorengo landareak erabili ditugu: geza mina, mozoloa, goikoetxea, txalaka, manttoni, moko, urtebi handia eta txikia, Errezila eta abar», dio Larrañagak. «Bizkaian, besteak beste erabili dira odixa, orri zarratue, txistu, azpuru garratza eta ibarra. Nafarroan, berriz, azken urteetan, hauek landatu dira: burdintxe, juregizarra, arroxa, izarbe, Narbarteko gorria, eta abar», zehaztu du teknikariak. Iparraldean ere sagardoa egiten denez, sagastia ere ugariak dira. Hauek erabiltzen dira: estika, mamula eta peratxa.

Zuhaitzak ematen duen fruitua landare mota bakoitzaren arabera da. Hala ere, landare klasea ez da sagarraren ekoizpenean eragiten duen faktore edo baldintza bakarra. Sagasti bateko zuhaitzek uzta ona eman dezaten, hainbat gauza izan behar dira kontuan. Inaki Larrañagak adierazitakoaren arabera, esate baterako sagastia non dagoen. Eta dioenez, hauek ere kontuan



LORATUTA. Lurrera ondo egokitutako sagastia. MARISOL VAREN

izan behar dira: «dur mota, nora-bidea, garaiera, haize lekua den ala ez, hezetasuna, itzala eta aldapa dira ezaugarrietako batzuk». Larrañagak dio leku hotzetan berandu loratzen diren sagarrondoak motak erabiltzea komeni dela. Horrela, azken izotzak saihesteko aukera izaten da. Bestalde, komenigarria da ezagutza tekniko ere izatea. Izan ere, sagastia kudeatu egin behar da; gaixotasunak ezagutu behar dira, eta behar den bezala zaindu behar dira.

Sagastia zaintzen

Landare guztiak bezala, zainketa bereziak behar izaten ditu sagan-

Sagarrondoak zainketa berezia behar izaten du osasuntsu egoteko eta uzta ona izateko

rrondoak osasuntsuago egoteko eta aldi berean uzta hobeago emateko. «Sagastien ekoizpena handiagoa izateko, ongari egokia ematea ezinbestekoa da. Lurrak eta landareak beharrezko dituzte hiru elementu: nitrogenoa, fosforoa eta potasioa», dio Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak. «Landarearen lehenengo urteetan, forma eman behar zaio zuhaitzari. Aurrerago, behar bezala kimatu behar da, bai udan eta bai neguan», gehitu du Larrañagak.

Gaixotasunek eta izurriteek ere eragiten diote sagarrondoari. Zuhaitzaren osasun ona eduki dezan, urte osoan sagastia kon-

lazko uzta handia ikusita inork ez du uste sagarrondoak horren ondo loratuko direnik

trolatu behar da gaixotasunen bat ikusiz gero lehenbailehen erremedioa jartzeko.

Inaki Larrañagak esan du fruitua zaintzea ere garrantzitsua dela. «Batuetan, arbolari fruitu ale batzuk kentzen zaizkio urtero-urtero antzeko fruitu kopurua emateko», adierazi du adituak.

Gaixotasunak

Beste edozein landare bezala, gaixotasunak eta izurriteak izaten dituzte sagastiek. Larrañagak esan du hemen ondokoek eta bakterioek sortzen dituztela sagarrondoak izaten dituzten gaixotasunak. Horien artean ohikoena da *gorrina* delakoa. «Gorrinak ematen die min gehien gure sagastiei, eta gaixotasun hori dago zabalduen hemen. Zuzenean, hostoei, loreei eta fruituari eragiten die», esan du Larrañagak.

Beste ohiko gaixotasunak dira txankroa, zurina, monilia, lepoa ustelzea eta susturriak ustelzea. Eta bakterioen artean, su bakterioa da ezagunena.

Aipatutako gaixotasunei aurre egiteko, kobrea duten produktak erabiltzen dira.

Sagarrondoak gaixotasunetaz gain izurriteak ere izaten dituzte. Izurri dira intsektu batzuk, akarok eta karraskariak. Fruitu arbolari minik handiena sortzen diote, besteak beste, harrak, zorriak eta zulakariak.

Gaixotasun hauek guztiak urrun edukitzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat azterketa egiten ditu urte osoan. Horieta-ko bat apirilaren eta maiatzaren artean egiten da. Udaberriko hilabete horietan, sagastia loretan daudenean, aldaera bakoitzaren hainbat ohar biltzen dira. Larrañagaren aburuz, garrantzitsua da sagarrondo aldaera guztiak aldi berean egotea loretan. Izan ere, handiagoa da erleek loreak polinizatzeko aukera. Gainera, lore bakoitzean bi sexuak baldin badaude, hau da arra eta emea, ona da erleek beste aldaerako polena garraiatzea. Horrela, polinizazioa eraginkorragoa izan ohi da.

Datu horiek biltzeko hainbat proba egiten dira. Larrañagak adierazi du, lehenik, fruituaren pisua, garratzasuna eta azukre maila aztertzen direla; bigarrenik, iodoaren testa ere egiten zaio, fruitua heldu den edo ez jakiteko. Hirugarrenik, berrogeialdiko gaixotasunak kontrolatzen dira.

Erakundeak laguntza

Argi dago; sagastien mantenua ona garrantzitsua da, eta horrek eguneroko lana eskatzen du. Jarraipen hori egiteko, hainbat diru laguntza ematen dizkie Gipuzkoako Foru Aldundiak sagar ekoizleei. Larrañagak zerrendatutako laguntzen artean, honako hauek daude: sagardoa egiteko sagastien landaketan inbertsio osoaren %35eko laguntza; landaketa egin eta hiru urterako sagarrondo bakoitzeko 4 euroren ordainketa; eta makinaria berezia erosteko laguntza—sagar-rrak biltzeko makinak izan ezlik—.

Hala ere, laguntza horiek gehituzko asmoa dagoela adierazi du Larrañagak. Hainbat herrirerentzat, sagardogintza ekonomia aldetik motorra izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzen jarraitu nahi du. «Orain arte bezala, landareak dituztenak diruz laguntzeko asmoa du Foru Aldundiak; gainera, diru laguntzak emango ditu itxituratarako, sagastietako bideak konpontzeko eta abarretarako». Larrañaga teknikariak esandakoaren arabera, sagastien zainketa bultzatu nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak, kalitatezko sagardoa izan dezagun.

Botilako sagardoa

2009ko txotx garaia bukatu berri den honetan, 2008ko uzta botilan dastatzeko garaia iritsi da. Azken urteetako handiena izan da iazko uzta. Larrañagak esandakoaren arabera, adimako jendeak esaten duenez, ez omen du horrelakorik ezagutu. Orotara, 10 milioi sagar jaso ziren.

Udaberriari euri asko egin zuen, eta horrek ondokoek sortutako gaixotasunak sortu zituen. Baina, hala ere, sagarra osasuntsua izan zela dio Larrañagak. «Udaberriari eta udaran ez zuen hainbeste berorik egin, eta, horregatik, intsektu gutxiago izan zen», gehitu du adituak.

2009ko uzta

Dagoeneko, aurtengo sagarrari begira daude sagardoazaleak eta adituak. Larrañagaren hitzetan, iazko uzta handia izan baitzen, inork ez zuen uste sagarrondoak horren ondo loratuko zirenik. «Hasiere batean, loraldia ona izan da, baina udaberriko hotz eta euriek fruituaren eragingo dute seguru asko. Uda nolokoa izango den ere garrantzitsua da. Hala ere, goiza da ezer esateko», gaineratu du.



dimarpe, s.a.

◀ mangerak eta ureztatzeko tresnak
◀ tutueriak eta osagarriak

Oria etor.,6
Tel.: 943 37 26 86
Faxa: 943 37 33 03
20160 LASARTE-ORIA